

IKASKINTZA OROKORRA TA IKASKINTZA BEREZIA

Bearrezko ta bidezko, noski, ikaskuntzaren bi azpegi auek, bakoitza bestetik ongi bereiztea, ta onela egiten bide da edonun eta beti, irakaskintzaren lege baten antzo dalarik. Lenengoa, esan bearrik ez, guziaz dagokie, berak darabilzkien gayak ere orrelaxe baitira, ta orrengatik orokorra dugu. Aitzitik, bestea, ontaz ala artaz, gizatalde zedarrituari dagokio, zedarritze ori batzuetarikoa izan ditekellarik.

Alan eta guztiz be, ikaskintza oien artean ba-dago, egon bear, alkarrekiko berdin ikustekoa dan zerbait; lenengoz, len-dabizikoa bigarren oñarria izan bear, bigarren ortan erabiltzekoa dan bidea artan asten dalako ta bigarrenean zabaldurik izan dedin; gero, gañera, izkuntza bera ta onen bitartez erabiltzekoa dan izen-salla; ta beti ere lenengoa bigarrene-rako asikera ikusteko.

Alkarren arteko aipatzen ditugun bi lokarri oietatik, bigarrena dugu garrantzi aundienekoa, gurean astiro ta arretaz begiratu bear duguna; gure izkuntzak, ain bedegarra dugulako, ikaskintza bi oiei bereizitasun nabarigarria, izkuntzaren beraren bereizitasuna, ematen dielarik; bereizitasun ori, jakina, beste izkuntzetan ditekenezikiko izanik; ta lenengoz adierazi nai-izan dugun beste bereizitasuna, gayai, elbururako ala beste ziozbatek zedarritua ikustekoa dala.

Gai, elburu ta zioak ere gure-gureak izan ditezke, ta naiz berez naiz gure Erri'aren azpegi berezi bati egoki dakizkiolako, orra berezizat artzeko berdin ez tiran azpegiak, eta biak oso aintzakotzat artzeko ditugu bien gifloan irakaskintza antolatu ta emana izan dedin.

Alabaña, guzti ori, ain nabarigarria izanik, ba-dirudi aipatu ere bear-izango elitzakela; ta bakoitzean begiratzeko sortuko dan bearra, edonor ezinbestekoa izango dan bidea ziur artzeko gai izan diteke; bearrik ez, orrengatik, norabiderik ematea, berez nori-naí aurkeztuko zaiolako.

Beraz, izkuntzarena izan bear, bereizitasuna bezela, geyago ta sakonago begiratu ta aztertzeke; ta aipatu ditugun ikaskintza bi oiei, gurean, bereizitasun aundiema ematen dalarik. Ortik datorkigu lenengo bearra, gure izkuntza au ta gure mintzoera alik eta sakonik irakasleen aldetik ezagutuak izatea.

Iñoiz ezta izango gurean geyegi, azken asmo orri buruz ekin eta ekin yardutea, joan diran mendeetan barna gure aurrekoak euskerarekiko ain zabarkeriz beterik beti jokatu zutelako. Aundia izan da betidanik alboko erderak euskerari jasan bear-izan dioten eragipena, gure izkuntzarentzat ain kaltegarria izan dana; baña eragipen orren aurrean —sifisgaitza dalarik— euskalduna beti makurtuta agertzen da edestian barna.

Eragipen kaltegarri ori euskaldunen zabarkeriak eman dio laguntza aundiema; ondo gogoratu bear dugu egi deitoragarria dan ori, gaur eta gero areago, naiz eragipen naiz zabarkeri orren aurka, gogor eta egokiro geron aldetik jokatzeke.

Euskeraren aurka ain egokiro alkartu diran bi jokero oien ondorio txarra Erri'aren biotzeraño eldu da ta gaur, sarri, jatortzat artzen dana, egitan guztiz kutsutua agertzen da azterketa egoki baten ondoan. Erri'aren izkuntza da, noski, betidanik gurean erabilli dana, ta onarritzat artu bear da, gaurko ontan ainbeste esondatzen danez; baña ez itsu-itsuan, eta orrela izan etzedin baitezpadakoa izango zaigu,

alde guzietan eta guzietatik, eten gabe, euskera beraren ikastean are sakonago ari-izatea.

Bear eta egokitasun oiek, gañera, ororenak izan bear dira, ta ezin utzi dizaizkiekegu izkuntzalariei bakarrik, auek esan dezaketenari ezpairik gabe jarraitzeko; ez, guziori dago-kigu lan ori, ertsiki gañera, ta izatekotan irakasleai izari za-balenean; guziok beti ta beti gogoratu bear baitugu gure Erri'aren egizko bizia, ain zuzen gogoari dagokiona, euskera-ren bidez beriziki zaindu ta indartu ditekela, eten gabe ta isituki gogoratzekoa dana.

Ainbat eta ainbat mendeetan barna gure Erria euskeraz mintzatzen bizi-izan da; ta euskeraren erabiltze orrek eman dio Erri'ari bere izakera berezia, bai ta berberak eutsi dio, bearra zan bezela, Erri'aren gogoari bere indarra. Ezin uka ditekela ori, ta ortan dagoen egi argi orren aurrean ezinbes-tekoa zaigu ondorio au ateratzea: naiz izkuntzari, naiz eus-kal-biziari eusteko ta indartzeko, zabaltzeko ere, ain luzaroan erabillitako euskera bera dala erabiltzeko bearra.

Bear orri ez dio ezertxorik kentzen, gaur euskera euskal-ki batzuetan bizi-izateak; euskalki guziena ta bakoitzarena da euskera, guzian izkuntza, ta orrengatik euskalki guziak lagun-tzeko guziongana eginbide ertsia. Orrela mintzatuz ez dugu ezer esan nai euskeraren batasunaren aurka; aitzitik, batasun ori ororen elburutzat onartu bear dugu, baña batasun orta-runtz astiro ta arretaz joan bear dugu beti; gure izkuntza ezertan indartu gabe; batasuna berez etorriko da (au milla bider esan dugu) ta ortarako bidean urratsez-urrats ibiltzeko beti; gure itzak, gure aditzak eta gure esakerak izkelgi gu-zietakoak erabiltzen, orrela bakarrik burutuko baita gure iz-kuntzaren batasuna.

Asmo ori da, geron ustez, guziengan tinkoturik bizi bear-izango litzakena. Bide batzuk esondatuta izan dira elburu ostarako, ta oien artean indar aundiena izan zuena Azkue ta Garitaonaindia'k esondatu zutena izan zan, «Gipuzkera oso-tua»; baña ura, bizkaitarrak izan ziran soillik jarraitu zute-na, ta orrela etzuen zabaltasuna naikoa lortu; ta gure iduri-ko xede ortaz izkelgi bat autatzen bada, neurri aundian, bes-teak baztertzca da ta ori beti izateko, mintzatzen danaren-

tzat kaltegarria. Orrengatik bidea euskalki guziak onartzea izan bear da, on eta ezinbestekoa bezela.

Orixe guzien aldetik onartua izango balitz bide egokian aurreratuko giñake aintzina, batez ere lenengo ikastoletan norabide ori ematen baldin bada; bai ta era berean guziengan zabarkeria ezabatzeko oitura ta eginbearra bezela artzean. Ikus bedi bear ori edonun eta beti!

Ba-dago, otian, guregan, ikaskintza berezia, izkuntzareki-ko zearo dagokiona; ta bide batez gure Erri'an emango dan ikaskizun orokorrari ere bere berezitasuna emango diona; gure-gurea izateko ta, aldi berean, izkuntzarentzat eta euskal-biziarentzat egokiena duguna.

Gañera, gure izkuntzaren egitura ain berezi, nabari ta tinko izatean, guztiz bedegarria ta egokia izango dugu egitura orren inguruan egin al-izango duguna; ta beste aldetik, euskeraren almenak ere, ain aundi ta zabalgarrak ditugularik, gure gogo-landa ia zedarrik gabeko zabaltasunean ikus dezakegu; ba-dugu, alakotz, nun eta nola yardun eta lanegiteko bide ederra; egitura ofiarrizat artzeko ta almenak bitarteko egingarria.

Ikaskintza ta irakaskintza izan diteken guzirako, orra gure berezitasun zeatza, guri, euskaldunoi zuzen dagokiguna; beste berezitasun guziak baño garrantzitsuago duguna. Irakaskintzan ari diran guziaz gogoz eskatu genieke geron aldetik berezitasun ori ongienik azertu dezatela; gure yakintza guzia ta gure gogo-bizi guzian, bide bearrena dugun orren bitartez, ongi ta indarrez ari ta aurreratzeko.

Indar dezagun guziok geron burua, ikaskintza ta irakaskintza guzietarako, euskeraren ofiarri ta ezinbesteko baldintza bezela gero ta geyago onartzeko. Ortik zabalduko zaigu euskal-bizia, ortik elduko zaigu euskeraren batasuna ta ortik ere etorriko zaigu gure Erri'ari eusteko bide egokiena.

Urtubia